

TABAKALERA



# EGONALDI-DEIALDIA: BITARTEKARITZA- PROIEKTUAK

KULTURA  
GARAIKIDEAREN  
NAZIOARTEKO  
ZENTROA

CENTRO  
INTERNACIONAL  
DE CULTURA  
CONTEMPORÁNEA

INTERNATIONAL  
CENTRE FOR  
CONTEMPORARY  
CULTURE

[tabakalera.eus](http://tabakalera.eus)



## 1. AURKEZPENA

Tabakalerak, sorkuntza-zentroa den aldetik, egonaldi-programa bat du artistei, sortzaileei, komisarioei eta kultura-eragileei laguntzeko.

Aurreko hauei egonaldi-deialdi berri hau gehitzen zaie, kultura-bitartekaritzaren arloan lan egiten duten euskal testuinguruko pertsonak eta/edo kolektiboak hartzeko. Deialdi honetan islatzen da zentruak duen borondatea bitartekaritza kultur-ekoizpen garaikide gisa aitortzeko; baita hezkuntza-praktika kokatuetan ezagutza sortzen eta eraldaketa nahiaz lanean diharduten pertsonen/kolektiboen laguntzeko ere.

Gainera, Tabakalerak duen asmoa adierazten du, espazio handiagoa eskaintzekoa gure testuinguruko bitartekaritzaren arloko eragile eta kolektiboei; bere jarduera modu partekatuan garatzeko.

## 2. XEDEA

Deialdi honen helburua da bitartekaritza kokatuko prozesu esanguratsuen eta bitartekaritzaren arloko ikerketa diskurtsibo eta metodologikoen garapena babestea eta sostengatzea, Tabakalerako Hezkuntza arloan egiten den lanean laguntzeko eta osagarri izateko.

Helburu bikoitz hori garatzeko baldintza material egokiak sustatzearen, deialdiak bi modalitate ditu:

1. **Bitartekaritza-prozesu** bat garatzeko egonaldia: Egonaldiak **hamar hilabete iraungo du**, eta Tabakaleraren hurbileko testuinguruan bitartekaritza-prozesu bat garatzeko espazioa, denbora eta baliabideak eskainiko ditu. Prozesua komunitate edo kolektibo espezifiko batekin lotuta aktibatuko da, kolektibo zaurgarrituekiko sentsibiltate bereziarekin; horrela, Tabakalerako Hezkuntza arlotik aniztasunaren inguruan gaur egun egiten diren ekintzekin bat eginez.

Prozesua Tabakaleran bertan edo bere hurbileko/tokiko ingurunean antzemandako premietan oinarrituta garatzea da helburua.

Aukeratutako bitartekariak edo kolektiboak proposamena taxutu eta egonaldian gauzatu ahal izango du, **2024ko irailetik 2025eko ekainera** bitartean.

**Proposamen bat aukeratuko da** lehenengo modalitate honetara aurkezten diren proiektu guztien artean.

2. **Bitartekaritzan ikertzeko** egonaldia: Egonaldiak **lau hilabete iraungo du**, eta bitartekaritzaren inguruko ikerketa-proiektu bat garatzeko espazioa, denbora eta baliabideak eskainiko ditu. Ikerketa ez da bitartekaritza-prozesu baten garapenarekin edo programa baten aktibazioarekin lotuta egongo. Modalitate honen helburua arlo honetan ezagutza



sortzen laguntzea da, baita ezagutza horren kolektibizazioa sustatzea ere, arlo honetan lan egiten duten gainerako eragileen eskura jartzeko tresna gisa.

Ildo horretan, hautatutako pertsonak edo kolektiboak proposatuko dituzten ikerketa-proiektuen ikaskuntzak eta/edo ondorioak, beste pertsona edo testuinguru batzuek egokitu ditzaketen metodologia edo tresnetara eramangarriak izan behar dira. Proiektuak gai hauetakoren bati heldu beharko dio:

- aurrera eraman den bitartekaritza-proiektu edo -praktika jakin bateko ikaskuntzen azterketa/ebaluazioa, berrikuspen kritiko gisa; praktika propio bat izan edo ez.
- kultura-bitartekaritza garaikidearen testuinguruan premiazkoak diren gaiei, tentsio emergentei edo oraindik heldu ez zaien debatei buruzko ikerketa bat.
- moduei eta metodologiei buruzko ikerketa bat; non jasotzen diren bitartekaritza-proiektuetan ohikoak diren premiei heltzeko eta hauek garatzeko baliabide pedagogiko erabilgarriak.

Hautatutako bitartekariak egonaldian zehar taxutu ahal izango du proposamena, **2024ko iraila eta abendua bitartean**.

**Proposamen bat hautatuko da** bigarren modalitate honetara aurkezten diren proiektu guztien artean.

### **3. EGONALDIAREN GUTXIENeko DENBORA-TARTEA ETA GARAPENA**

Bi egonaldi-modalitate horiek ez dute lanaldi osoz egotea eskatzen. Dena den, egoiliarak konpromisoa hartuko du Tabakalera antolatutako lan-eremuetan **presentzia jarraitua** izateko, testuinguruarekin eta Hezkuntza arloarekin harremanak ezartzeko eta/edo mantentzeko. Maiztasun hori batzordearekin adostuko da deialdira aurkezten den lan-egutegiaren proposamenaren arabera, eta jarraipen-bilera bat izango du hilean behin gutxienez.

Bestetik, bi egonaldi-modalitateen artean, bat datozen hilabeteetan, gurutzatzeko eta trukatzeko espazioak sortuko dira.

### **4. HAUTAGAIK / PARTE-HARTZAILEAK**

Euskal testuinguruari lotutako pertsona/kolektibo fisiko edo juridiko orok parte hartu ahal izango du deialdian, baldin eta testuinguru horretako kultura-bitartekaritzaren sarean ekarpenak egiten baditu.

Deialdira aurkeztu ahal izango dira kultura-bitartekaritzako proiektuen garapenarekin lotutako lanak egin dituzten pertsonak, betiere praktika artistiko garaikideen esparruan,



izan modu partzalean edo eskusiboan. Bitartekaritza-prozesuetan alde aurretik izandako esperientzia egiaztatu beharko da (ikusitako hautaketa-irizpideei eta aurkeztu beharreko dokumentazioari buruzko puntuak).

Era berean, deialdira hainbat pertsona fisiko edo juridiko batera aurkeztu ahal izango dira, haien artean inolako harremanik formalizatzea eskatu gabe. Zentzu honetan, agente anitzen arteko aliantzak sortzea posible da.

Parte hartzen duten pertsona / kolektiboek beren ordainsariei dagozkien fakturak jaulkitzeko gaitasuna dutela egiaztatu beharko dute.

## **5. BATZORDEA ETA HAUTAKETA-IRIZPIDEAK**

Tabakalerako langileek eta sektoreko profesionalek osatutako batzorde batek baloratuko ditu aurkeztutako proiektuak, irizpide hauen arabera:

- **Bi modalitateetarako:**
  - Eskatzaile(ar)en profila eta ibilbide profesionala.
  - Aurkeztutako proiektuaren kalitatea/proposamen-gaitasuna, bai planteamendu kontzeptualaren ahalmenean, bai prozesuaren formalizazioan.
  - Prozesuaren edo ikerketaren egokitasuna eta ekarpena Tabakalerako Hezkuntza arloko lan-ildoei eta tokiko testuinguruari dagokienez. Tabakaleratik alde aurretik landu ez diren gaiei/arazoei erantzutea baloratuko da.
- **Bitartekaritza-prozesurako:**
  - Proposamen kontzeptualak eta metodologikoak tokiko testuinguruarekin (artistikoa, hezitzailea, asoziatiboa) duen lotura. Testuinguru sozial horrekin alde aurretik harremana izatea baloratuko da. Halakorik ez balego, komunitatearekin/kolektiboarekin harreman hori nola ezarriko den zehaztu beharko da proposamenean.
  - Proposamenaren bideragarritasuna (prozesuaren garapenari, egutegiari eta abarri dagokienez)
- **Ikerketa-proiekturako:**
  - Proposatutako gaiaren interesa eta hura zehazteko gaitasuna uztartzea.
  - Ikerketaren konpromisoa eta ahalmena, bere kontzeptualizaziotik hasita, ezagutza partekagarria eta erreplikagarria sortzeko.

Batzordeak deialdia bete gabe utzi ahal izango du, baldin eta uste badu aurkeztutako proiektuetako batek ere ez dituela betetzen egonaldiaz gozatzeko behar diren ezaugarriak edo merezimenduak.



## **6. EGONALDIRAKO HORNIDURA**

Bi egonaldiak Tabakalerak Donostian dituen instalazioetan egingo dira. Programak egonaldi-modalitate bakoitzerako prestazio espezifiko hauek barne hartzen ditu:

### **1. Bitartekaritza-prozesuko egonaldia**

1. 10.000 € gehi dagokion BEZa, ordainsari gisa, eta faktura bidez ordainduta. Zenbateko horri egoiliar bakoitzaren egoera fiskalaren arabera atxikipena aplikatuko zaio. Horretarako, dagokion dokumentazioa eskatuko da.
2. 4.000 euroko partida (zergak eta atxikipenak kanpo), ekoizpen-gastuetarako eta prozesuari lotutako beste gastu batzuetarako. Zenbateko hori ere faktura bidez ordainduko da, aurrekontua aurkeztu ondoren. Horretarako, dagokion dokumentazioa eskatuko da. Egonaldiak ez du ostaturik barne hartzen.

### **2. Bitartekaritzako ikerketa-egonaldia**

1. 4.000 € gehi dagokion BEZa, ordainsari gisa, eta faktura bidez ordainduta. Zenbateko horri egoiliar bakoitzaren egoera fiskalaren arabera atxikipena aplikatuko zaio. Horretarako, dagokion dokumentazioa eskatuko da.
2. 1.500 €-ko partida bat (zergak eta atxikipenak kanpo) ekoizpen-gastuetarako eta prozesuari lotutako beste gastu batzuetarako, besteak beste joan-etorrietarako, dietetarako, etab. Zenbateko hori ere faktura bidez ordainduko da, alde aurretik aurrekontu bat aurkeztuta. Egonaldiak ez du ostaturik barne hartzen.

### **Bi modalitateetarako:**

3. Lan-eremua Tabakalerako artisten gunean, oinarrizko altzariez, korrante elektrikoko harguneaz eta argiztapenez hornitua.
4. Sarbidea officera eta partekatzen diren espazioetara.
5. Sarbidea Tabakalerako sorkuntzako liburutegi espezializatuaren funtsetara eta Medialabeko baliabideetara.
6. Sarbidea irudiak eta soinua editatzeko estudioetara, platora edo praktika eszenikoetarako espaziora, eta maileguan hartutako ikus-entzunezko baliabideetara.
7. Baliabide teknikoak eta laguntza Tabakalerako taldearen aldetik, beharren eta prestasunaren arabera.
8. Laguntza kontzeptuala proiektuaren garapenean Hezkuntza arloaren aldetik, eta testuinguruko eragileei eta proiektuei aurkezteko laguntza, egoiliarrek hala eskatuta.



Bi modalitateetarako, honela ordainduko da diru-hornidura:

- % 80 proiektuaren hasieran
- Gainerako % 20 azken memoria entregatzean

**Ohar argigarria:** Hautatutako proiektua kolektibo batek aurkeztu badu (hainbat pertsona fisikok edo juridikok, haien arteko inolako harremanik formalizatzea eskatu gabe), kolektibo horrek izendatzen duen pertsona fisikoari esleituko zaizkio prestazioak, edo kolektiboak eskatutakoari, horretarako Tabakalerak alde aurreko erabaki diskrezionala hartuta. Oinarrietan erabakitako zenbatekoa ez da inola ere proposamena bidaltzen duten pertsonen kopuruaz biderkatuko.

## 7. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Deialdi honetara aurkezteak konpromiso hauek onartzea dakar:

- Esleitutako eskaera bat kendu behar bada, izangaiak behar besteko aurrerapenez jakinarazi beharko du.
- Hitzartutako egunetan lan-eremutik justifikaziorik gabe alde egiten badu edo egonaldia oinarrietan adierazitako denbora-tartera egokitzen ez bada, egonaldia eta kasu bakoitzean emandako laguntzak erabat edo partzialki bertan behera uztea ekar dezake.
- Egonaldia bera edo haren inguruan sor daitezkeen jarduerak Tabakalerak egonaldi-programaren inguruan eta Hezkuntzan garatzen duen programazioan sartuko dira.
- Egonaldiak iraun bitartean, egonaldi-proiektuak ikusarazteko Tabakalerak antolatuko dituen jardueretan parte hartu beharko du egoiliarak.
- Tabakaleratik igaro ondoren, egoiliarak bere egonaldiari buruzko memoria bat aurkeztu beharko du. Bi modalitateetan, memoriak bereziki azpimarratuko ditu sortutako ezagutza partekagarriak, edukiari zein formari dagokienez beste eragile batzuek berenganatu hala izan ditzaten - 'tresna-kutxa' gisa.

## 8. IZENA EMATEKO EPEA ETA ENTREGATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Izena emateko epea zabalik egongo da **2024ko apirilaren 30etik ekainaren 7ra, eguerdiko 12:00ak [UTC+ 1]** arte. Deialdiaren ebazpena **2024ko ekainaren 24an** egingo da, eta Tabakaleraren webgunean eta bere sare sozialetan argitaratuko da, ebazpena eman eta gehienez 15 eguneko epean.

Izena emateko, Tabakaleraren web-orria erabili beharko da, online inprimakia beteta eta honako dokumentazio hau erantsita, jarraian ezarritako hurrenkeran:



1. Harremanetarako datuak, besteak beste: izena, abizenak, NAN edo baliokidea, helbidea, e-maila, harremanetarako telefonoa, jaioteguna. Modalitate honetan, ordezkari bakarra esleituko da hautatutako proiektuaren solaskide gisa.
2. Proposamena zein modalitaterako aurkezten den: 1. Bitartekaritza prozesua edo 2. Bitartekaritza ikerketa
3. Proiektuaren azalpena eta Tabakalerako egonaldian landu nahi denari buruzko motibazioa (gutxienez 500 hitz, gehienez 1.000 hitz).
4. Material grafikoa edo proiektua argitzen lagunduko duten beste material batzuk.
5. Aurleztutako proposamenaren kronograma zenbatetsia. Lan-egutegi horretan egonaldi presentzialaren aurreikuspena jasoko da, 3. atalean adierazitakoaren arabera.
6. Beharren aurreikuspen orientagarria (espazio-motak, materialak, etab.)
7. Eskatutako lanbide-profila egiaztatzen duen curriculum vitae.
8. Biografia laburra edo sozietatearen historia (500 hitz gehienera).
9. Deialdian jasotako ordainsariengatik fakturak jaulki ahal izatearen egiaztapen fiskala.

Dokumentazioa dokumentu bakar batean erantsi beharko da, PDF formatuan (gehienez 10 mega, 10 orri). Artxiboa honela izendatu behar da: *izena\_abizena\_modalitatea* izan behar du; adibidez: *sara\_zudaire\_bitartekaritzako* prozesua edo *sara\_zudaire\_bitartekaritzako* ikerketa.

Bidalitako dosierak **euskaraz edo gaztelaniaz egon behar du idatzia.**

## 9. JABETZA INTELEKTUALA

Hautagai edo parte-hartzaile eta hautatutako onuradun guztiek bermatuko dute, bai (i) eskaera egitean, bai (ii) oinarri hauen xede diren baliabideak erabiltzen dituen proiektua gauzatu bitartean Tabakalerari ematen dioten dokumentazio grafikoa, testuala edota ikus-entzunezkoa jatorrizkoa dela eta ez duela hirugarrenen jabetza eskubiderik urratzen. Ondorioz, Tabakaleraren aurrean edo haren hirugarren kolaboratzaileen aurrean erantzungo dute, material horien inguruan hirugarrenek jabetza intelektualaren harira erreklamazioaren bat aurkeztuz gero; gainera, kalte-ordaina eman beharko diete entitate horiei, adierazitako kontzeptuekin zerikusia duten erreklamazioek sor diezazkieten kalte eta galera guztiengatik.



Oinarri hauek onartzean, onuradunek baimena ematen diote Tabakalerari edozein euskarritan erabiltzeko laguntza honetara aurkeztutako eta/edo proiektua garatzerakoan sortutako dokumentazio grafikoa, testuala edo ikus-entzunezkoa; betiere xede bakarra izanik deialdia, haren edukia eta emaitzak ezagutaraztea eta herritarrentzat eskuragarri jartzea, edozein kanaletan eta doan. Horrenbestez, Tabakalerak ahalmena izango du edozein kanalen bidez jendaurrean erakusteko eta komunikatzeko, bai proiektua garatzen den bitartean, bai proiektua amaitu ondoren, epemugarik gabe.

Aurreko guztiak ez die kalterik egingo egile-eskubide moralei eta dokumentazio grafikoaren, testualaren edota ikus-entzunezkoaren gaineko jabetza intelektualaren ondare-izaerako eskubide guztien titulartasunari. Dokumentazio horiek onuradunenak izaten jarraituko dute.

## **10. DATU PERTSONALEN BABESA**

Hautagaiei eta/edo parte-hartzaileei jakinarazten zaie, oinarri hauek onartuz, baimena ematen diotela Tabakalerari eskaera aurkezteko unean ematen dizkieten datu pertsonalak eta, hautatuak izanez gero, oinarri hauen xede diren baliabideekin hornitutako proiektua gauzatzen ari diren bitartean ematen dizkietenak erakunde horrek erabil ditzan, haien eskaera izapidetu eta kudeatzeko, ematen zaizkien hornidurez gozatzeko eta, ondoren, horiekin hornitutako proiektua zabaltzeko.

Datu pertsonal horiek erakunde eta organismo publikoei jakinaraziko zaizkie, baldin eta horretarako betebeharrak legala baldin badago. Halaber, jarraian datorren II. klausulan xedatutakoa betez, laguntza jaso duten onuradunen irudia eta izena hirugarrenei jakinarazi ahal izango zaizkie eta Tabakalerak oinarri hauen xede diren laguntzak hedatzeko eta haiekin lagundutako proiektuak gauzatzeko erabiliko dituen jakinarazpen-sistemen bidez, edozein euskarritan.

Testuinguru horretan, adierazten da datu pertsonal horiek aurkeztea beharrezkoa dela; izan ere, datu horiek ez badira aurkezten, ezin izango dira kontuan hartu laguntzaren eskaera eta deialdiko parte-hartzea.

Hautagaien edo parte-hartzaileen datu pertsonalak gorde egingo dira haien proposamena baloratzeko eta, hala badagokio, laguntzak emateko eta baliatzeko kudeaketa egiteko behar-beharrezkoa den denboran, baita Tabakaleraren legezko betebeharrak betetzeko kontuan hartu beharreko kontserbazio-epe gehigarrian ere.

Edonola ere, hautagaiei edo parte-hartzaileei eta hautatutako onuradunei jakinarazten zaie honako eskubide hauek dituztela: (i) euren datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko edo ezabatuzko, datu horien tratamendua mugatzeko, datuen eramangarritasuna eskatzeko eta tratamenduari uko egiteko. Horretarako, eskaera egin beharko dute idatziz, eta [hezkontza@tabakalera.eus](mailto:hezkontza@tabakalera.eus) helbide elektronikora bidali; (ii) Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren edo beste edozein kontrol-agintaritzaren eskudunen aurrean erreklamazio bat aurkezteko eskubidea, bereziki euren eskubideak baliatzean gogobeteta geratu ez badira.





## 11. IRUDI-ESKUBIDEAK

Oinarri hauek onartzearekin batera, hautatutako onuradunek baimena ematen diote Tabakalerari honako hauetarako: (i) baliabide tekniko egokien bidez haien irudia erregistratzeko (argazkiak, bideoak, etab.); (ii) irudi horiek eta izena Tabakaleraren webgunean eta beste edozein euskarritan, bai fisikoa eta bai elektronikoa, erabili eta erreproduzitzeko, bere kontrolpean edo hirugarren laguntzaileen kontrolpean. Horren xede bakarra izango da oinarri hauen xede diren laguntzak hedatzea eta haiekin lagundutako proiektuak exekutatzeko. Baimen hori ezeztatzen da.

## 12. OINARRIAK ONARTZEA

Deialdian parte hartzeak deialdiaren oinarri hauek onartzea dakar.

Info +: [hezkontza@tabakalera.eus](mailto:hezkontza@tabakalera.eus)

[www.tabakalera.eus](http://www.tabakalera.eus)